

BERMEO / 'El enano saltarin' ipuina da nire gustukoena

'Ipuina beldurra galarazteko bitarteko gisa' hitzaldia eman du Bermeon Galtzagorri elkarteko kideak

Ekaitz Goienetxea

Juan Carlos Alonsok (Errenteria, 1959) hitzaldi bat eman zuen, atzo, gurasoei zuzendua, liburutegian. Umeak larregi babesten direla uste du. Zelan da posible beldurrezko ipuin batek ume bati beldurra gainditzen laguntzea?

Ipuinak bere boterea du, umeari fantasia eta irudimenaren mailan jartzen dizkio desioak, kezkak, sentimenduak... Eta beldurrak kanpoan islatzen dituenek, era xarmant baten, haurrak kanpoan ikusten du barruan sentitzen duena. Beldurrezko ipuin bat entzuterakoan, sentitzen du ez dela beldurra sentitzen duen bakarra. Bere beldurrak onartzen eta normalizatzen ditu, eta ipuinak arrakastarako arrastoak ematen dizkio, beldur horiek gainditzeko. Ipuin askok erabiltzen dute beldurra, nolabait, ezta?

Gurasoei aipatzen diet ia ipuin guztiek dutela apur bat. Nahiz eta esplizituki beldurraren gaiarekin zerikusirik ez izan, uste dut inplizituki beldurra hor dagoela. Zer esanik ez klasikoetan, ipuin klasiko guzti-guztiek beldurra ukitzen dute: Txanogorritxu, Zazpi Arkumeak... Gertatzen dena da bertsio originalak apur bat xamurtzen joan direla urteetan. Xarma hori kentzen zaie.

Gurasoen kezka bat izan daiteke, lotara joan aurretik horrelakoak kontatzeak amesgaiztoak izateko aukera handitzen duela.

Egia da gaur egun pixka bat saihesten saiatzen garela sufrimendua haurrari. Haurra gehiegi babesten dugu. Babesten dugu, bai errealitatean eta bai fikzioan. Gurasoaren beldurra, baina gurasoarena da beldur hori, beldurrezko ipuina kontatzeagatik umeari antsietate handiagoa sortzen dioten beldurra. Ez dagoenez ohituta berarengandik horrelako ipuinak entzutera, orduan bai, sentitu dezake beldurra. Baina, sentitzen du beldurrak dituelako barruan, eta ez dituelako kanpora atera, inoiz ez duelako horri buruz berba egin. Gainera, badaude beste ipuin mota batzuk beldurra umorearekin tratatzen dituztenak. Era goxoan kontatuz gero, ez du traumarik sortzen.

Zuri, txikitari, zein izan zen gehien gustatu zitzazun ipuina?

Txikitatik ipuin klasikoak gustatu izan zaizkit; entzuteko eta kontatzeko. Gehien, El enano saltarin gustatzen zitzaidan, ez dakit euskaraz nola izango litzatekeen. Oso-osoa polita zen, nire ipuina hori zen.